



PRENTSARAKO OHARRA

18/11/23

Bizkaiko Foru Aldundiak ez dau aurreikusten bere bulegoen parte bat Bizkaia Torrera urte bi baino lehen eroaterik

Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak gaur goizean Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean egiaztatu dauenez, Bizkaiko Foru Aldundiak ez dau aurreikusten bere bulegoen parte bat Bizkaia Torrera urte bi baino lehen eroaterik. Leku aldaketa horren zergaitia, une honetan Bilbon sakabanatuta dagozan 33 bulegoak zentralizatu beharra da.

Talde Mistoak planteatu dauen agerraldi eskariari erantzunez, eraikin horretan foru departamentuei eta erakundeei zuzendutako 8.667 m²etan foru zerbitzuak jasotearen alokairua 1.601.256 eurokoa izango dala (15,40 euro hilean m² bakotzeko) adierazo dau Bengoetxeak.

Leku aldaketan kostuei jatorriarekin, “lekuz aldatu beharreko unidateen arabera” izango dala esan dau; dana dala, “bulegoen eta enpresen leku aldaketetan ohikoak” izango dira, “aldaketa horreek egingo diran unean merkaduak izango dituan ratioak kontuan izanda”.

Bengoetxeak “nasaitasunezko” mezua zabaldu deutse taldeei, “leku aldaketa ez dala aton egingo” ziurtatuz, eraikinak, “jaubeak egingo dauen obra garrantzitsua eskatzen dauelako”. Halanda be, esan dauenez, badago eraikina 2020. urtearen bukaeran Aldundiari emoteko konpromisoa, “baldintza jakin batzuek”.

Bere azalpenaren ostean, Batzarretako taldeek euren balorazioak egin eta galdera batzuk bideratu ahal izan deutesiez. Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroalearen eretziz, “arrakastaren katea lekuz zein unidate aldatuko diran ondo aukeratzea” da; holan, unidateak eraikinean “apurka-apurka sartzea” gomendatu dau.

Eduardo Andrés Talde Popularreko batzordekidearen galderari erantzunez, Foru Diputatuak esan dau une honetan Aldundiak 8 bulego daukazala alokautan.

Neskutz Rodriguez Podemos taldeko bozeroaleak eta Joseba Gezuraga EH Bildukoak, amiantoa dala eta eraikinak daukan egoeraren aurreko interesa erakutsi dabe. Galdera horreei erantzunez, “entregatuko orduan ez dauela ezelango amiantorik eukiko” argitu dau Bengoetxeak.

Euzko Abertzaleak taldearen aldetik, Unai Lermak foru zerbitzuen zentralizazioa jarri dau balioan, horri esker “herritarrengandik gertuago egoteko aukerea zabalduko dalako”.

Foru Diputatuak adierazotakoagaz bat etorri, Juan Otermin batzordekide sozialistak, “aukera politikoa, soziala eta ekonomikoa” dala esan dau, eta datozan urte bietan joango dala gauzatzen.

ALONSOTEGI TRAMARI BURUZKO AUZIA

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua, Alonsotegiko tramari buruzko auzian Aldundia kaltetu lez bertaratzearen inguruko azalpenak emoteko be etorri da batzordera, Talde Mistoak eskatuta.

Ibone Bengoetxeak azaldu dauen moduan, Bizkaiko Foru Aldundiak “esku artean dauka 2008ko abenduaren 11ko Foru Araua dala eta Alonsotegiko Udalarari ordaindutako kopuruen ganeko ekintzak azaltzen dituan ofizioa”. Zehatzago esanda, idazkiak, “Basteitako futbol zelaiaren sarbideetan eta Artibako bidean egindako obrakaz” erlazionetan dau Aldundia. Obra horreek biak 2008ko uriolen ostean egin ziran.

Labur izan bada be, Foru Diputatuak adierazo dau, gaur egun “Foru Aldundia kaltetu lez agertu dala prozeduran”. Halanda be, ez dau aurreratu gauzatu beharreko ezelango jarduketarik “Epaitegiak orain arte egindako jarduketan xehetasunak ezagutzen ez doguzan arte”. Bere eretziz, hori egitea “ausartegia izatea” izango litzateke.

EH Bildu eta Podemos taldeek, Aldundiak diru-laguntza horreen inguruan daukan kontroleko prozeduraren ganean galdetu dabe. Bengoetxeak ziurtatu dauenez, Aldunditik kontrol “zorrotza” egiten da, eta “falta zan bakarra, baten batek delitu bat egin ezker, arduraduna iruzurra jaso dauena izatea da”, gehitu dau.

GIZARTE ZERBITZUEN FINANTZAKETEA

Saioa, EH Bildu taldeak egin dauen ahozko erantzun-eskeagaz bukatu da, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gizarte zerbitzuak eskaintzera bideratutako Gizartekutxa eta Mendekotasunagaz erlazionautako osagaia, benetan gizarte zerbitzuen finantzaketan erabilten diran ala ez zelan bermatzen dauan jakiteko.

Bengoetxeak argitu dauenez, Aldundiak “ezin dau bermatu” Gizartekutxa eta Mendekotasunagaz erlazionautako osagaia, benetan gizarte zerbitzuen finantzaketan erabilten diran ala ez. Hori, “beste batzuen kontuetan sarte guztiz onartezina” izango litzateke, eta baita “geure buruari emon deusagun sistema instituzionalaren kontrakoa” be.

“Aldundi moduan, udalak euren aurrekontu politikea ezarteko libre dirala defendiduten dogu, eta baita gura daben zerbitzu publikoen prestazino mailea erabagiteko be”, azaldu dau.

Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekideak, barriz, barriro esan dau “erespide batzuetan oinarritutako kontrola egon behar dala, dirua erabili behar dan horretan erabili daiten”.

NOTA DE PRENSA

23/11/18

La Diputación Foral de Bizkaia no prevé trasladar parte de sus oficinas a la Torre Bizkaia antes de dos años

La Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha asegurado esta mañana en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales, que la Diputación Foral de Bizkaia no tiene previsto trasladar parte de sus oficinas a la futura Torre Bizkaia antes de dos años. Un traslado que responde a la necesidad de centralizar las 33 oficinas que, actualmente, se encuentran dispersas por Bilbao.

En respuesta a una petición de comparecencia planteada por el Grupo Mixto, Bengoetxea ha manifestado que el coste anual que supondrán los alquileres en dicho inmueble por acoger a los servicios forales en los 8.667 m² destinados a departamentos y entidades forales, asciende a 1.601.256 euros (15,40 euros mensuales por m²).

En lo que a los costos de los traslados respecta, éstos dependerán “de cuáles sean las unidades que sean objeto de traslado”; no obstante serán “los habituales para mudanzas de oficinas y traslados de empresas según los ratios de mercado en el momento en el que se vayan a producir”.

Bengoetxea ha lanzado a los grupos un mensaje de “tranquilidad” asegurando que “el traslado no va a ser inmediato” puesto que el edificio “requiere de una obra sustancial que va a acometer el propietario”. Sin embargo, también ha apuntado que existe un compromiso para que a la Diputación se le haga entrega del edificio a finales del año 2020 “con unas determinadas condiciones”.

Tras su exposición, los grupos junteros han tenido oportunidad de realizar sus valoraciones y de trasladarle algunas preguntas. En opinión del portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, “la clave del éxito es elegir bien qué unidades se trasladan”; en este sentido, ha aconsejado realizar una “entrada gradual” de las unidades en el edificio.

A pregunta del apoderado del Grupo Popular, Eduardo Andrés, la Diputada Foral ha detallado que actualmente la Diputación dispone de 8 oficinas en régimen de alquiler.

Tanto la portavoz del grupo Podemos, Neskutz Rodriguez, como el apoderado de EH Bildu, Joseba Gezuraga, se han interesado por el estado del edificio en relación a la aparición de amianto. En respuesta, Bengoetxea ha aclarado que “está garantizado que la entrega será libre de amianto”.

Por parte del grupo Nacionalistas Vascos, Unai Lerma ha puesto en valor la centralización de los servicios forales argumentado que ésta “va a posibilitar maximizar esa cercanía con el ciudadano”.

Coincidiendo con lo expuesto por la Diputada Foral, el apoderado socialista Juan Otermin ha manifestado que ésta se trata de una “oportunidad política, social y económica” que durante los próximos dos años irá desarrollándose.

JUICIO SOBRE LA TRAMA ALONSOTEGI

La Diputada Foral de Administraciones Públicas y Relaciones Institucionales ha comparecido también, a petición del Grupo Mixto, para hablar acerca de la personación de la Diputación como perjudicada en el juicio sobre la trama de Alonsotegi.

Tal y como ha explicado Ibone Bengoetxea, la Diputación Foral de Bizkaia “dispone de un oficio por el que se le ofrecen acciones en relación a cantidades abonadas al ayuntamiento de Alonsotegi conforme a la Orden Foral del 11 de diciembre de 2008”. Concretamente, el escrito relaciona a la Diputación con “obras en el acceso al campo de fútbol de Basteita y en el camino de Artiba”, ambas acometidas tras las inundaciones de 2008.

Brevemente, la Diputada Foral ha manifestado que, a fecha de hoy “la Diputación Foral ya se ha personado en el procedimiento como parte perjudicada”. No obstante no ha adelantado ninguna actuación a realizar, “en tanto en cuanto no conozcamos los detalles de las actuaciones realizadas por el Juzgado hasta la fecha”. Hacerlo, en su opinión, sería “una temeridad”.

Tanto EH Bildu como Podemos han preguntado sobre el procedimiento de control que desde la Diputación se realiza en torno a dichas subvenciones. Bengoetxea ha asegurado que la Diputación lleva a cabo un control “exhaustivo”, añadiendo que “solo faltaba que si alguien comete un delito, el responsable sea el engañado”.

FINANCIACIÓN DE SERVICIOS SOCIALES

La sesión ha finalizado con una pregunta oral de EH Bildu sobre la manera en la que garantiza la Diputación Foral de Bizkaia que Gizartekutxa y el complemento vinculado a la Dependencia destinados a financiar los servicios sociales se emplean realmente en la financiación de los servicios sociales.

Según ha aclarado Bengoetxea, la Diputación “no puede garantizar” que Gizartekutxa y el complemento vinculado a la dependencia vayan destinados realmente a financiar servicios sociales. Ello supondría “una injerencia absolutamente inaceptable”, además de “contrario al sistema institucional del que nos hemos dotado”.

“Como Diputación defendemos que los ayuntamientos son libres de establecer su propia política presupuestaria y también defendemos que son libres para decidir el nivel de prestación de servicios públicos que desea”, ha explicado.

La apoderada de EH Bildu, Arantza Urkaregi, sin embargo ha insistido en que “debe haber un control en función de unos criterios para que se emplee lo que se tiene que emplear”.